

# ARTE BARROKOA




# ARTE BARROKOA

## KRONOLOGIA , KOKAPENA ETA ESPARRU HISTORIKOA

- Arte barrokoa **XVII. mende osoan** eta **XVIII.aren lehenengo hamarkadetan** garatu zen. Estilo barrokoa **ia Europa osotik** eta **Latinoamerikatik hedatu zen.**

Barrokoa **XVII. mendearen hasieran** sortu eta garatu zen, **aita santuen Erroman.** Ongi zehaztutako estiloa izan gabe, artelan guztietan errepikatzen zen jarrera komuna zen: gustu bat azken batean. Estilo hau **Erromatik Europan zehar hedatu zen** uhin zentrukideetan, eta **hortik Europan menpe zeuden herrialdeetan** barrena. Barrokoaren ezaugarriak beranduago agertuko ziren Italiatik urrundu ahala. Beste arrazoi bat ere bada, hots, **Italian nagusi zenaren antzeko kultura, erlijioa eta politika-giroa zuten herrietan berehala errotu eta hedatu zen** barrokoa; baldintza historiko zeharo desberdinak zituzten lurraldeetan berriz, ez zuen inongo arrakastarik izan.



**Garai honek ezaugarri nagusi batzuk ditu:**

- Mende hauetan **indartu egin ziren estatu nazionalak**, eta gailurra jo zuen Jainkoak emandako boterean oinarritutako **monarkia absolutuak**. Erregeak botere handia zuen bere herrialdean, elizak fededunengan zuenaren parekoa, obediencia osoa inposatzen zuen, eta bere jauregiekin eta gobernu-eraikinekin menpekoak liluratzeko zituzten. Sistema honen adibiderik onena Frantziako Luis XIV. Erreinaua izan zen. Egoera honek, hain zuzen ere, Luis XVI. arene heriotzera arte iraun zuen. Frantziako iraultzak ordena berri bat eta lengoia berri bat ekarri baitzituen.

Absolutismoaren ondorioz, **gorte eta administrazio neurrigabeak ezarri ziren**, eta **horrek hiri-mota berri bat sortarazi zuen: estatuko hiriburua**. Hiri berri hauen diseinuak berriz ere, hirigintza bultzatu zuen, hau errenazimendu garaian ahaztuta egon baitzen praktikan. Hiri zaharretan ere, auzoak bota eta plazak egin ziren, eraikuntza zibil edo erlijiosoentzako ikuspegi ezin hobeak sortuz.

- **Lurra baldin bazen oraindik ekonomiaren euskarria, zenbait herrialdetan** goraka zihoan burgesiak bultzaturiko **merkataritzak eta eskulangintzak sekulako indarra** hartu zuen: Ingalaterra, Holanda...

- **Gizartea estamentutan** zatiturik zegoen.

- **Gatazka ugariko garaia** izan zen hura, **Erreforma eta Kontraerreformaren garaia**, hain zuzen ere, Erreforma protestantearen ondorioz mundu katolikoaren berregituraketa gertatu zenekoa. **Arteak** ere parte hartu zuen liskar ideologiko honetan, **borrokarako tresna eta fedea hedatzeko bide** bilakatu zelarik. **Erlijioaren zabalbide** izan ez ezik, **monarkiaren eta inguruko klaseen euskarri** ere izan zen. **Burgesiak indar handiagoa zuen herrialdeetan, bestalde, burgesen gustuen adierazgarri izan zen barrokoa** (Holandan, esaterako).

- **Barroko terminoa**, Penintsula Iberikoan forma ez-erregular eta bitxiko perla-mota bat izendatzen zuten; Italian, berriz arrazoitze pedante, bihurri eta balio eskasekoei zeritzeten honela. Azkenean, Europako hizkuntza ia guztietan, bakan, itxuragabe, anormal, ohi-bestecko, tajugabeko eta irregularraren sinonimo bilakatu zen barroko hitza. Zentzu horretan hartu zuten XVIII.mendeko kritikoeek aurreko mendeko artea izendatzeko, ezaugarri horiek guztiak baitzituen.

## EZAUGARRI OROKORRAK

Barrokoaren ezaugarri nagusia anbiguotasuna izan zen. Garaiko artistak Errenazimenduaren oinordeko zirela aldarrikatu zuten, eta aro hartako arauak onartzen zituztela adierazi, hala ere, sarritan hautsi zituzten arau horiek:

1.- **Errenazimenduan oreka, neurria, apaingarri-urritasuna, arrazionalismoa eta logika nagusitu ziren.**

2.- **Barrokoa**, ordea, berrizalea, mugimenduarekiko, infinituarekiko, kontrasteekiko eta arte guztien nahaste ausartarekiko maitasuna azaldu zuen estiloa izan zen. **Dramatikoa, neurrizgainekoa** eta **gehiegitasun-zalea** izan zen, aurreko garaia barea eta sotila izan zen bezain beste.

	<b>ERRENAZIMENTUA</b>	<b>BARROKOA</b>
<b>helburuak</b>	proporzioa , perspektiba	mugimendua, argitasuna eta handitasuna
<b>oinplanoa</b>	basilikala eta zentralizatua	zentrala edo zentralizatua
<b>arkua</b>	erdi puntukoa	erdi puntukoa
<b>sabaiak</b>	kanoiak edo dinteldunak	kanoiak edo dinteldunak
<b>euskarriak</b>	zutabeak eta pilastrak	zutabeak (salomondarra) eta pilastrak
	kupulak	kupulak
	horizontaltasuna nagusi	kurba nagusi

# ARKITEKTURA BARROKOA

Plastikari dagokionez, **arkitektura izan zen nagusi**. **Eskultura eta pintura hari lotu zitzaizkion** eta **arte guztien arteko sinbiosi** bat gertatuz zen.


Arkitekturaren **elementu guztiak** (euskarriak, eutsiak eta apaingarriak) **klasikotasunetik jasoak** dira. Errenazimentuak elementu horiek lege eta proportzio jakinetan erabili baldin bazituen; barrokoak, ordea, askatasunez, batzuetan funtzio arkitektonikoa bera ere galduz: eraikuntz elementuak apaingarriak bihurtzen direnean, esate baterako.

Arkitektura barrokoaren ezaugarri nagusiak, **mugimendua, argitasuna eta handitasuna** izango dira.

1.- **Mugimenduaren garrantzia** : Forma kizkurrak, kurbatuak, erabiltzearen ondorioz lortzen zen arkitektura barrokoaren kezka nagusienetakoa zen mugimendua. Honen adierazgarri dira:


## 1.1- Eraikinen elementuak:

- Frontoi etenak
- Sargune eta irtengune ditzuzten arkitrabeak eta taulamendu kurbatuak.
- Salomondar zutabea.




## 1.2.- Eraikinen oinplanoak :

- Lerro kurbatuen garaipenak zehiarkako planoak eragin zituen; hauek **argi-efektuak** sortzen zituzten, ikuspegi zabal eta sakonekin. **Oinplano zirkularrak**, lerro nahasikoak eta **eliptikoak** nagusitu ziren:



**S. PEDRO ENPARANTZA**



**S. CARLO ALLE QUATTRO FONTANE**

- **Fatxada konkaboak** (ahurrak) eta **konbexuak** (ganbilak) dira eta hiri-espazioarekin hertsiki lotuta daude, zein angeluetatik ikusiko diren kontuan hartuz, ikuspegi fugatuen eta ardatz diagonalen efektuak bilatuz. Gainera, dekorazio mugitua eta oparoa dute.

- **Gangetan eta kupuletan pinturak goranzko espazioak sortzen dituzte.** Espazio hauetako irudien mugimenduak, mugimendu orokorra azpimarratzen dute.




2.- **Argiluna** : Planoetako eta gainazaleko hausturek sakontasun eta iluntasun-jokoak sortzen laguntzen diote argiari. Gainera, **kolore edo ñabardura desberdineko marmolak edo harriak** erabiltzeak eta efektu horietako joera zuen dekorazio polikromoak ere eragina dute joko horietan.



3.- **Handitasuna** : Eraikinen barnean eta kanpoaldean : **Orden erraldoien** erabilera.

Estilo honen agerbide garrantzitsuenak **elizak** eta **jauregiak** dira. Hauekin batera **hirigintzaren garapena** emango da. Eraikuntzaren fatxadak, bestalde, ez zuen sarritan barruko espazioa kanpoan adierazten, fatxadak kanpoaldearekin zuen harremana- ez eraikinaren barnealdearekin- inguruko eraikuntzekin, kale eta enparantzen perspektiba-jokoekin: Vatikanoko, Loiola...



Vatikanoren fatxada




## ITALIA

**Estiloa barrokoa Erroman sortu zen**, kontrarreformaren giroan. G.Della Porta egindako Gesu elizaren fatxada eta Madernoren Vatikanoko S. Pedrorenak estilo honen oinarri izango ziren, eta aurrerantzean, forma kurbatu konplexoagoetara eboluzionatu zuen, apaindura handiko formetara; hauek mugimendu handiko erritmoak eta argilunak sortzen zituzten.

### Maderno (1556-1629)

- Arkitekto italiar honek irabaziko zuen Vatikanoko S. Pedro eliza bukatzeko enkargua. Madernok aldatu egingo zuen Bramante eta gero Miguel Angelek aurrera eraman zuten gurutzegreko oinplano zentralizatuaren proiektua, honen ordez **gurutzeko-latinek** erabili zuen. Baina errespetatu egin zuen nagusi zen elementua Miguel Angelen kupula, horrela fatxada altxatu zuenean, nahiz eta monumentalak izan horizontalki garatuko zuen eta ez alturan, **fatxada-teloia** izango da ez datorrelako bat atzeko egiturarekin.
- Madernok fatxada honekin prestatu egingo zuen baita, gero Bernini arkitektoak enparantzari emango zion irtenbide urbanistikoa.

#### *- Vatikanoko S. Pedro basilikaren fatxada*



## Bernini (1598-1680)

- Arkitekto, eskultore eta pintore, Bernini izan zen barrokoaren arkitektoen artean maisua. Klazisismoari adierazkortasun handia nahastu zion, aita santuak eskatzen zuen efektismoa lortuz.



### - *Vaticanoko Baldakinoa:*

- Brontze urreztatuzko eraikina.
- Egokitu behar den espazioak bezala, proportzio monumentalak.
- Lau zutabe salomondar ditu, dinamismoa emango diotenak eraikinari.




### - *S. Pedro plazako kolomata:* 1656-1663

- Espazio eliptikoa, zutabe erraldoien ilarek osatzen dutenak.
- Arkupearen diseinuak helburu sinbolikoa eta funtzionala du:
  - Komunitate katolikoa besarkatzen eta hartzen duen elizaren besoak dira.
  - Bestalde bere lerro kurbatuak angelu hilak saihesten ditu, puntu guztietatik ikustea erraztuz.




Zutabe toskaniarrak



- *Quirinal-eko S. Andres eliza:*

- Oinplano eliptikoa eta kaperak erradialak ditu.
- Fatxadaren gortuz nagusi konbexu bat agertzen da.



## **Borromini** (1599-1667)

- Fantasia eta gaitasun tekniko handiko arkitektoa izan zen. Tradizioarekin hautsi zuen eta bere berrikuntzak Europa osoan imitatu ziren.

- (\*) *S. Carlo alle Quattro Fontane eliza:* (Erroma)
  - Bihurgune anitzeko oinplano obala erabili zuen..
  - Fatxadaren uhin-tankerako mugimendua, lerro eta planoen kontrajartzea eta formei ia eskultura itxura ematen dien plastizitatea nagusitzen dira.
- *S. Ivo:* Erroma
  - Izar-formako oinplanoa eta linterna oso orijinala nabarmentzen dira.
- *S. Agnese (Ines) eliza :* Erroma Piazza Navona



**S. Carlo alle Quattro Fontane**



**S. Ivo alla Sapienza**



# FRANTZIA

Monarkiaren goraldiarekin batera, gune artistiko garrantzitsu bilakatu zen Paris XVII. mendean. Italiako dinamismo eta konplexutasunaren ondoan, arkitektura barroko frantsesaren ezaugarriak **klasizismoa eta arrazionalismoa** izango izan ziren.

Eraikuntza garrantzitsuena Luis XIV.ak eginiko Versailles jauregia izan, Luis XIII.ena zenaren ehiza pabeloi bat aprobetxatuz, baso eta zingira artean aurkitzen zena. Obra honekin estilo berri bat hasi zen, klasizismoa eta handitasuna lortu zituena kanpoaldean, eta gehiegizko apaindura zuten barrualdeak egin zituena.

## (\* *Versalles-ko jauregia:*

- **Le Vau** eta **Hardouin-Mansart** izan ziren arkitektoak, **Le Notre**-k jardinak diseinatu zituen eta **Le Brun**-ek barruko dekorazioa.

- Lursailaren erdian egina, bi fatxada ditu, bat hiriarri begira eta bestea jardinei.

- Jauregia horizontalean zabaltzen da, erdian **Erregearen gela**, bere nagusitasunaren ispilu.

- Le Notre-n jardinak eredu izan ziren Europan guztian duten geometrizazio eta simetriarako joeran, lore-sailak kale eta plaza moduan bereizten dira: gizakien menpeko jardina.

- Dekorazio mailan aipagarria de **Ispiluen galeria**.



**Hardouin Mansart** arkitektoarenak dira baita:

- **Versallesko kapera**

- **Les Invalides eliza** Parisen: Napoleon-en hilobia bertan aurkitzen da.



**Versallesko Kapera**



**Les Invalides**

## ESPAINIA

- Espainiako aldi barrokoa **XVII.** mendean eta **XVIII.** mendearen **lehen erdialdean** garatu zen. **XVII.** mendeari dagokionez, oro har, esan daiteke **krisi-aldia** izan zela, European eta areago Espainian.

- **Krisi ekonomikoa:** uza txarrak eragindako gosete eta izurriteen ondorioa izan zen, honi nekazaritza eta industriaren atzerapena gehitu behar zaio eta Amerikako urre eta zilarraren urritzea. Ondorioz biztanleria %25 jaitsi zen.
- **Krisi politikoa:** nabaria izan zen baita kanpora nahiz barrualdera begira. Espainiako **erregeen gobernu falta** eta eginkizun politikoak bere **balidoen eskuetan uztea**, gorte-gizonen azpikeriazko politika, **Frantziaren eta herri protestanteen aurrean bere ordena tradizionala gorde nahi izatea**, sakoneko **berrikuntzarik egiteko gauza ez izatea**, **moriskoen kanporatzea** eta honek sortu zuen beherakada ekonomikoa, **politika zentralista** barne gatazka garrantzitsuak sortu zituen.

Garai honetan desegin zen baita, penintsulako batasuna eta **independizatu ziren** Gaztelako erreinutik **Portugal**, behin-betiko, eta **Kataluina aldi baterako**.

European zituen hainbat domeinu mende honetan galdu zituen eta Espainiak zuen hegemonia inperiala hemen bukatu zen frantsesen eskuetara pasatzeko.

**XVIII.** mendearen hasieran aldaketak emango dira borboitarren dinastia berriarekin, eta modernizatzeko lehenengo ahaleginekin batera, emankizun artistikoetan ere aldaketak emango dira.

- Krisi egoera nagusi honen ondoan, **kulturaren munduak emaitzarik onenak eman zituen**, batez ere **literaturan** izen handienak emanaz, eta **arte plastikoetan** : **Urrezko mendea** izenarekin pasatu da mende hau historiara.

- **Eliza** izan zen nagusi XVII. mendeko bizitzaren eta artearen eginkizunean, izan ere, **Kontrarreforma** katolikoa biziki indartu zen Espainian . Horren eraginez, izpirituaren nagusitasuna aldarrikatuz eta arrazoia baino gehiago **emozioa eta sentiberatasuna nabarmendu** nahirik , artea erabili zen azalpen modu eta konbenzitzeko elementu nagusi bezala.

## ARKITEKTURA

- Arkitektura barrokoa **European baino beranduago** sarte zen, kontrarreformako izpirituari hobeto zegokiolako Escorial-ek sorturiko eredu garbia eta zurruna. Ondorioz garai honen hasierako eraikuntzek bazuten oraindik laztasun eta sinpletasun kutsu moduko bat. Laster, ordea, Italian ematen zenaren ohiartzuna jasoz, eta luxua nolabait erakutsi beharraren eraginez dekorazio fantasiazkoak eboluzioa hasi zen.

- Ezaugarri nagusienak hauek izan ziren:

- **Apaindurarako zaletasun porrokatua:** Egia da zaletasun hori ez zela berria penintsulako arkitekturaren, arabiarren tradizio hasita jarraituz platereskoraino ere bizirik iraun zuena. Baina mende honetan gauzatu zen bereziki jarrera hori.

- **Elizak ziren eraikuntzik ugariak:** Urria izango zen gortearen eginduz egindako arkitektura, nahiz eta hainbat udaletxe, unibertsitate eta jauregi bakan batzuk ere eraiki ziren hiriaren apaingarri.

- **Elizak egituraz eta oinplanoz sinpleak ziren:** Lerrozuzenak gehienetan eta Erromako Gesú-ren tipologiakoak hasieran. Barrualdeak, ordea, erretaula eta dekorazio distiratsu aberatsez

estaltik zeuden. Kanpotik ere bolumen simple garbiz osatzen ziren, baina, gero eta areago, **fatxadak nabarmendu** egin ziren bere dekorazio oparoa zela eta:

- Konposizioz eta lerro klasikoak zituzten.

- Erretaulak bezala tratatuak, barruko zutabe salomondar eta bestelako moldura eta landare-gaiak jartzen ziren estilo aberats eta fantasiatzkoa eratuz, batez ere XVIII. Mendearen hasieran.

- Gehien erabili ziren **materialak adreilua, igeltsua eta iztukua** izan ziren, harria gutxiago erabili zen ordea. Material pobreen erabileran, eragin zuzena izan zuen bizi zen krisi ekonomikoak.

### a) XVII. mende hasierako arkitektura

- Iraun egin zuen estilo herreriarrak eta estilo soila sortu zen, gehiegizko apaindurak gogoko ez zituen, eta krisi ekonomikoaren ondorioz material merkeekin egin.

- Orduan hiriburu berri bihurtu zen **Madriden** lan egin zuen arkitektoen artean ditugu:

### Juán Gomez de Mora

- Herreraren laztasunetik aldentzen hasiko den arkitektoa izango zen , nahiz eta Madrilgo oraindik obra batzuetan joera hori ikusi:

- **La Encarnación komentua (Madril):** Eredu garbizalea jarraitzen du.



- **Madrilgo Plaza Nagusia eta udaletxea:**



- **XVII. mendearen lehen erdialdetik aurrera**, dekorazio gehiago erabiltzen hasi ziren eta tokian tokiko eskolek garrantzi handia hartu zuten. Honakoetan nabari zen italiarren eragina: **freskoan egindako dekorazioz** gainezka egin zituzten eraikinak eta **fantasia handiko moldurak eta zutabe salomondarrak** erabili zituzten.

## Andaluzia

### Alonso Cano

- *Granadako katedralaren fatxada*

- Diego Gil de Siloé-k eginiko katedral errenazentistaren fatxada izango da.
- Atzeraemandako (retranqueado) hiru arkuez osatua, garaipen-arku erraldoi baten eragina dauka.



### b) XVII.etik XVIII.era eragitea: Churriguerismoa

- Mende aldaketaren inguruan, **Borboi dinastia berriaren etorrerarekin** eta ekonomiaren susperraldiarekin batera, eraikuntzak ugartu egin ziren eta barroko espainiarraren abiadak goia jo zuen.

- Garai honetako ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- Taulamendu kurbatuen erabilera.

- Kapitela anitzeko pilastrak azalduko dira.
- Piramide itzulikatuen erabilera.

- Estetika gainkargatu eta eszenografi efektuzko arkitektura hau, arkitektoz, eskultorez eta erretaulen egilez osaturiko **Churriguera familiak** hedatutako estiloan nagusitu zen, barrokoari amaiera emanez. Churrigueratarrek **dekorazio-gai bilakatu zituzten forma arkitektonikoak**.

## Jose Benito Churriguera

- Hiruretatik ezezagunena eskultore eta arkitekto izan zen. Erretaulak egiten hasi zen:
  - *Salamanca-ko S. Esteban komentuko erretaula nagusia*



- Arkitekto lana Madrilgo *Baztan Berria-ren urbanizazioan* hasi , bertan eliza, jauregia, plaza arkupeduna eta langileen etxebizitzak egingo zituen.



## Joaquin Churriguera (1674-1724)

- Batez ere tailagilea izan zen:
  - *Calatrava ikastetxea.*
  - *Salamanca-ko Klaratarren erretaula*
  - *Medina de Rioseco-ko erretaula*




Calatrava jauregia



## Alberto Churriguera (1676-1740)

- Anai gazteena, arkitektoa izan zen, berak egingo zituen Espainako barrokoaren obrarik handienetakoak.

(\*)- *Salamanca-ko Plaza Nagusia: Udaletxea: García Quiñones*



## Levante-ko Eskola

- Espainiako ekialdea ere barrokoaren lorapen zentru indartsua izan zen.

## Jaime Bort

- *Murtziako katedralaren fatxada nagusia.*

## Konrad Rudolf

- *Valentziako katedralaren fatxada nagusia*

- Fatxada honetan hausten da lehenengo aldiz Espainian plano-egitura: gainazal konkabo eta konbexuen arteko joku bihurtuko da. **Rococo** estiloan sartzen da.

## Hipolito Rovira eta Ignacio Vergara

- *Marques de dos Aguas Jauregiaren fatxada*
  - Rovira-ren diseinua jarraituz, Vergara eskultoreak alabastroz egingo egingo zuen fatxada hau.
  - Bere dekorazio ugari eta oparoagatik , churriguerismo korronte barruan sar daiteke. Landareak eta giza figurak nahasten ditu.



Murtzia-ko katedrala

## Galizia



Marques de Dos Aguas-en jauregia

## Casas Novoa

(\*)- *Obradoiro-ko fatxada Santiago de Compostelan:* (1738-1750)

- Lehenengo arkupe erromanikoa estaltzen du, baoen beirate handiez hura argituz.



### c) XVIII. mendeko europar eragineko arkitektura

- Garai honetan bereziki jauregien eraikitzea indartuko da borboniar dinastia berriak bultzatuta eta susperraldi ekonomikoan oinarrituta.. Orain arkitekto frantses eta italiar asko etorriko da Espainiara lana egitera. Hauek Borromini-ren oinplano eliptikoak eta fatxada kurboak sartuko dituzte.

- Eraikuntza garrantzitsuenak **jauregiak** izango dira:

#### Juvara eta Sachetti

- *Madrilgo Errege jauregia*

#### Bonavia eta Sabatini

- *Aranjuez-eko jauregiaren zabalpena eta herriaren planifikazioa.*

#### Juvara

- *La Granja jauregia:*

- Ardemans-ek altxatua, Versaillesetik kopiatutako jardinak izango ditu.



**Madrilgo Errege Jauregia**



**La Granja (Segovia)**

### Euskal Herria

- Kontrarreformako artea XVII . mendearen hasieran sartu bazen gure herrian, goreneko maila XVIII.ean lortu zuen zenbait faktore tartean zeudelarik. Hauen artean garrantzitsuenak, noski, Amerikako merkataritza aktiboa (Caracas-ko Konpania: kakaoaren inportazioaren monopolioa zuena) eta Jesusen Lagundiaren ospea izango ziren.

- Euskal herriko barrokoak bi aldi ezagutu zituen:

**1.-** Lehengo aldian dekorazio gutxiko eraikuntzak egingo ziren:

- *Lazkaoko Infantado-ko dukearen jauregia.*

**2.-** XVII. azken herenean hasiko zen churriguerismo deituriko estiloarekin:

- Faxada mugituak
- Koloma salomondarrak
- Lore eta fruitudun motiboak dekorazioan.
- Urreztadura eta polikromatu ikusgarriak.



(\*) **Valdespina jauregia** (Ermuako udaletxea).



(\*) **S. Nicolas eliza Bilbon:**



(\*) **Loiolako monasterioa** (Azpeitia)

- Carlo Fontanaren proiektua, Zaldia, Lekuona eta Ibero arkitektuak egina.
- Kupularen eraikuntza Joaquin Churriguera-k zuzendu zuen.
- Txapitel konkaboak, eta fatxada kurbatuak berniniar jatorrizko diseinua da.
- Sarreran kutsu italiarreko eskailera monumentalak.



(\*)- *Donostiako Andra Mariaren basilika* : (1743-1764)

- Lizardi eta Salezak hasi eta Iberok bukatu zuten proiektua.
- Apaindura Churriguera-rena.
- Portada hondoratua, oinplanoz abside moduan seinalatzen da.



- Ugariak dira baita kanpandorreak eta udaletxeak: Arrasate, Oinati, Elgoibar...



Arrasateko udaletxea